



MINISTERIO
DE CIENCIA, INNOVACIÓN
Y UNIVERSIDADES

CONFERENCIA GENERAL DE POLÍTICA
UNIVERSITARIA

COMISIÓN DELEGADA

Honekin batera Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorreko Batzorde Delegatuak 2019ko ekainaren 5ean, EUNEIZ unibertsitatea ezagutzeko espedientea dela-eta, emandako txostenaren eranskina bidaltzen dugu.

Madrid, 2019ko abenduaren 2a

El Secretario de la Conferencia General
de Política Universitaria/Unibertsitate
Politikaren Konferentzia Orokorreko
idazkaria



José Manuel Pingarrón Carrazón

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea
Euskal Autonomia Erkidegoa
C/Donostia-San Sebastián, 1
01071 VITORIA (Araba)



EUNEIZ UNIBERTSITATEA EZAGUTZEARI BURUZKO TXOSTENAREN ERANSKINA

2019ko ekainaren 5ean, Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorreko Batzorde Delegatuak EUNEIZ unibertsitate pribatua ezagutzeari buruzko aldeko txostena, oharrekin, eman zuen.

Halaber, Batzorde Delegatuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate eta ikerketa sailburuordearen, Adolfo Morais Ezquerro jaunaren, eskariz, txostenari eranskin bat gehitzea adostu zuen. Eranskin horretan Ministerioko zerbitzu teknikoek egindako txostenaren eta Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak (Unibasq) egindako kontrako txostenaren arteko desadostasunak agertzen ziren.

Akordio hori betez, konparazio-txosten hau egin da. Txosten honetan, Unibasq-ek erabilitako metodologiaren arabera,- egoera horietarako exijitutako baldintzak sei dimentsiotan sartzen ditu Unibasq-ek,- bi txosten artean dauden desadostasun inportanteenak laburbiltzen dira.

Hau nabarmendu behar da: unibertsitateak sortzeko eta ezagutzeko maiatzaren 29ko 420/2015 errege dekretuak ezartzen dituen baldintzak betetzen diren edo ez zorrotz egiaztatzen mugatzen dute Ministerioko zerbitzu teknikoek espediente mota hauetan beren jarduera, era guztiz objektiboan eta, beraz, inolako iritzi subjektiborik eman gabe.

Unibasq-ek egindako txostenaren iritiz, ondorengo dimentsioak behar bezala betetzen dira:

- 5. dimentsioa: zerbitzua emango dela eta jarduerak jarraituko dutela bermatzea.
- 6. dimentsioa: antolaketa eta egitura egokia izatea.

Aitzitik, ondorengo dimentsioen balorazio negatiboa egiten du, eta aztertzea komeni da:



1. dimentsioa: titulazio ofizialen gutxienezko eskaintza akademikoa izatea.

maiatzaren 29ko 420/2015 errege dekretua

Ezagutza-arlo bakoitzean eta era globalean koherenteak izango diren **8 titulazioten gutxienezko eskaintza bat** exijitzen du 420/2015 errege dekretuak 6.1. artikuluan

Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorraren txostena	UNIBASQren txostena
5 graduako, gradu bikoitz 1eko eta 3 masterreko eskaintza bat proposatzen du EUNEI Zek. Horrela gutxienezkoen baldintza betetzen da. Teknologia berriak Fisioterapiaren eta Gorputz Jardueraren eta Kirolaren Zientzien eremuan aplikatu eta integratuko dituen prestakuntza espezifiko bat planteatzen du proposamenak. Titulazioak bi fakultateren eremuan artikulatzen dira: Osasun Zientzien fakultatea • Fisioterapiako gradua • Gorputz Jardueraren eta Kirolaren Zientzietako gradua • Gorputz Jardueraren, Kirolaren eta Fisioterapiaren Zientzietako gradu bikoitza • Gorputz Jarduerara eta Kirol Lehiaketara Berregokitzeako unibertsitate-masterra Teknologia Berri Interaktiboaren fakultatea • Eduki Digital Interaktiboetako gradua. • Bideo Jokoetarako eta Joko Aplikatueterako Arte Sormeneko Gradua. • Musika Ekoizpeneko gradua. • Eduki Digitalen Ekoizpeneko eta Ekintzailetzako masterra. Horiek horrela, eta proposatutako helburuari begira, planteatutako titulazioak koherenteak dira arlo bakoitzean eta era globalean hartuta. "Titulazioak garatzeko plana " izeneko atal bat sartzen da memorian. Atal horretan proposatutako zortzi titulu ofizialen ikasketa-plan bakoitzaren deskripzio zehatza ematen da. Prestakuntza-eskaintza hori Kataluniako zentroetan inplementatuta dagoela adierazi behar da. Horregatik, 420/2015 errege dekretuaren 6.1. artikuluan ezartzen den baldintza eta, beraz, 1. dimentsioa betetzen da	Ez dira behar adina betetzen 420/2015 errege dekretuan exijitutako baldintzak. • <i>Unibertsitate-masterrei dagokienez, gaur egun euskal unibertsitate-sisteman titulu horietarako plazen eskaintza eskara baino handiagoa da.</i> 420/2015 errege dekretuaren exijentziekin batere zerikusirik ez duen ohar hori egiten du Unibasq-ren txostenak, eta ez ditu zifrak ematen. Gainera, titulazioetako bi ez daudela euskal unibertsitate-sisteman inplementatuta aitortzen du. • <i>Tituluen planteamendua sartzen den ezagutza-arloarekin bat dator, baina ez da koherentzia argi bat ikusten eskaintako titulu guztietan.</i> • <i>Itxuraz haien artean loturarik ez duten bi titulazio-multzo eskaintzen dira, kokatuta dauden adarretako bat berean ere eskaintza oso bat ez direnak ".</i> Proposamenak teknologia berriak Fisioterapiaren eta Gorputz Jarduerako eta Kiroleko Zientzien eremuan aplikatu eta integratuko dituen prestakuntza espezifiko bat planteatzen duela ez du Unibasq-ek kontuan hartu. • <i>Osasun Zientzietako tituluak kirolaren munduarekin lotuta daude eta nahiko eskaintza osoa dira dauden arlo profesionalean, ezagutza-arloan normalean lantzen diren gaitasunen atal txiki bat besterik hartzen ez duten arren.</i> Aurreko baieztapena erabat subjektiboa da, ez baitago ikasketa-planak ikasketa horiek atxikita dauden ezagutza-arloko gaitasun guztiak eskuratzeko aukera ematera behartzen duen araudirik, ezta 420/2015 errege dekretua ere; bestalde, gai hori, ezinezkoa izateaz gain, unibertsitate-irakaskuntzen antolamenduari buruzko 1393/2007 errege dekretuak agertzen duen tituluaren kontzeptuaren kontrakoa da. • <i>Ezarritako beste edozein erakunde edo unibertsitatek oso ondo erreproduzitu dezake eskaintza hori ".</i> Hau harritzeko modukoa da: eskaintza ez dela egokia esaten duen arren, legitimatzen du eta beste edozein unibertsitatek erreproduzitu dezakeela adierazten du. Gainera, eragozten duen araudirik ez da existitzen eta, horretaz gain, unibertsitate desberdinek maiz antzeko tituluak eskaintzen dituzte. • <i>Proposatutako eskaintza gehiago dagokio atxikitako zentro bati, unibertsitate bati baino.</i>



	Kritika hori guztiz funtsik gabekoa da, araudiaren arabera berdin eratzten baita atxikitako zentroen eta unibertsitateen irakaskuntza-eskaintza, eta, gainera, ez ditu hiru alderdi kontuan hartzen: a) Badira unibertsitate pribatu gisa ezagutuak izan diren atxikitako zentroak. b) Txostenak berak aitortzen duenez, ebaluazio-organismoek behar bezala egiaztatu dituzte atxikitako zentroek ematen dituzten titulazioen ikasketa-planak. c) Unibertsitateak ematen ditu atxikitako zentroek emandako tituluak. Masterrei buruz emandako informazioetik ondorioztatzen denez, ezin da master horien maila MECESek ikasketa mota horietarako ezarritako mailarekin bat datorren argi ikusi. Masterren MECES maila kuestionatzen da, ondorengo hau kontuan hartu gabe: 420/2015 errege dekretuak 6.2 a) artikuluan xedatutakoaren arabera, "Kalitatea eta Akreditazioa Ebaluatze Agentzia Nazionalak (ANECA), edo unibertsitatea kokatuta dagoen lurraldean autonomia erkidegoko kanpo ebaluaziorako organoak (Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak- Unibasq-ek kasu honetan), ebaluatu beharko du Unibertsitatearen titulazioak garatzeko plana". Hau agerian ipini behar da: Unibasq-ek bere txostenean egindako beste ohar batzuekin gertatzen den legez, prozedura-uneak nahasten dituen iritzi bat ematen da, unibertsitatea ezagutu eta gero gauzatu beharko baita tituluak egiaztatze prozesua.
--	--

2. dimentsioa: ikerketa-programazio egoki bat izatea.

maiatzaren 29ko 420/2015 errege dekretua	
420/2015 errege dekretuak 6.2. b) artikuluan xedatzen duenez, ikerketa-jarduera gauzatzeko prozesua sustatu beharko dute unibertsitateek eta, horretarako, ikerketa-jardueraren hainbat urtetako programazio bat aurkeztu beharko dute unibertsitate berria integratzen duten titulazio ofizialei lotutako arlo zientifikoetan. Programazio horrek ondorengo atalak, besteak beste, izan beharko ditu: <u>talentu zientifikoa gehitzeko estrategiak, azpiegitura zientifiko-teknikoak eskuratzeko, erabiltzeko edota eraikitzeko estrategiak</u>, eskualde, nazio eta nazioarte mailako <u>ikerketa-proiektu lehiakorretan parte hartzeko estrategiak</u> eta <u>I + G + i arloan produkzio-sistemarekin lankidetzan aritzeko estrategiak</u>. Estrategia horietan <u>haien ebaluazioan ezarriko diren adierazleak</u> sartuko dira	
Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorraren txostena	UNIBASQren txostena
Ikertzaileek nazio eta nazioarte mailako deialdi publiko eta pribatuetan parte hartu ahal izateko eratuko den UNEIZ etorkizuneko fundazioaren bidez artikulatzen du bere ikerketa-proiektua EUNEIZek. Ikerketa-planaren helburu desberdinak eta berori 5 urtetan gauzatzeko estrategiak hartzen ditu proiektuak kontuan. Ikerketa aplikaturako erreferentzia-markoa definitu ondoren, ikerketa-jardueraren lehen lau urteko programazioa martxan jartzea aurreikusten da.	<i>Ez dira behar bezala betetzen 420/2015 errege dekretuan exijitutako baldintzak.</i> <i>Ez dira pertsonal ikertzailearen curriculumak aurkezten.</i> <i>Ez da pertsonal ikertzailearen curriculumak deskribatzen.</i> Aurkeztutako proiektuak pertsonal irakaslearen eta ikertzailearen plantilak hartzen ditu kontuan eta plantila horiek akademikoen eta ikertzaileen izenak eta perfilak sartzen dituzte. Dena den, lehenago esandakoak ez dira 420/2015 errege dekretuaren exijentzia gisa jasota agertzen. Gaurko prozedura-unea, unibertsitatea ezagutzearena, eta
Adibide moduan, ikerketa aplikatuko programa desberdinak aipatzen dira arlo zientifikoetan. Programa horiek proposatutako graduako eta masterretako irakaskuntzekin lotuta daude, lehen urteetan garatuko dira eta Osasun Zientzien eta Eduki Digitalen titulazioak lotzen dituzte. Etorkizuneko unibertsitatean ikerketa sustatuko dela ziurtatzeaz gain, talentu ikertzailea erakartzeko borondatea ere azaltzen da, deialdi irekien bidez eta, talentua eta ikertzeko gaitasuna	jarduerai hasiera emateko aldia, geroago izango dena, ez ditu bereizten Agentziak. <i>Ikerketa garatzeko plana hasiberriegia da.</i> Aurreko oharra ez du inolako logikarik, dagoeneko aurkeztu den ikerketa-programazio egoki bat exijitzen baitu araudiak. Jakina, programazio hori ezarri eta garatzearen zain dago.



sustatzeko, pertsonal irakasle eta ikertzailearen perfilaren arabera egituratuta egongo diren programak sustatuz.

Halaber, pertsonal zientifikoaren akreditazioa bultzatzeko eta errazteko **irakaskuntzako karrera-plan bat** ezartzeko asmoa adierazten da eta lan zientifikoak argitaratzeko aurrekontu-partida bat erabiltzeko konpromisoa hartzen da.

Sortu nahi den Ikerketa Sustatzeko Unitatearen,- Ikerketa, Berrikuntza eta Irakasleentzako Errektoreordetzaren menpe egongo da,- babespean eramango da lehenago aipatutakoa aurrera. Unitate horren bidez, emango zaio pertsonal irakasle eta ikertzaileari proiektu lehiakorren deialdiei buruzko informazioa errazago eskuratzeko aukera eta finantzazioan prestakuntza eta gaitasuna emateko programa, baita gainontzeko jarduerak ere, koordinatuko da. Jarduera akademikoa eta ikerketa-jarduera finkatu ondoren, aipatutako unitatea formalki **Ikerketaren Emaizak Transferitzeko Bulego** gisa (**OTRI**) eratuko da.

Irakasleak kontratatzeko eta beren ikerketa-jarduera ebaluatzeko kontuan hartuko diren **jarduera- eta kalitate-adierazleak espezifikatzen ditu memoriak** eta adierazle horiek Unibasq-ek eta ANECAk erabiltako irizpideak izango dituzte oinarri.

Ikerketa-proiektua konkretatzeko, Osasun Zientzien eta Teknologia Berri Interaktiboen fakultateetan espazio eta azpiegitura desberdinak aurreikusten dira. Ikerketarako funtzio anitzeko laborategi bat, 300 m²-koa, du lehen fakultateak, eta Gamifikazioko laborategi bat, 200 m²-koa, eta 92 m²-ko 4 laborategi, ikertzeko, bigarrenak.

Halaber, profesionalekin eta Baskoia kluba eta Deportivo Alaves Kluba bezalako kirol-zentroekin lankidetzan aritzeko asmoa agertzen da memorian, kirolaren arloan I+ G + i-rako proiektuak gauzatzeko asmoz. Proiektu horien artean, kirolarientzat elitekoentzat batez ere, errehabilitazio-teknika berritzaileak aurrera eramatea nabarmentzen da.

Ikerketa-jarduera konkretatzeko, funtsezko alderdi bat da finantzazioa. Kasu honetan, **zabal eta irmoa da sustatzaileek jarduera horrekin duten konpromisoa, diru-sarreraren % 6,1, 100.000 € gutxienez, erabiliko baita unibertsitateak funtzionatuko duen lehen urtean, gehi % 4 urtean.**

Atzerriko unibertsitate desberdinekin lankidetzan aritzea aurreikusten du proiektuak.

Horiek horrela, eta ikusten denez, 420/2015 errege dekretuak ezartzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu EUNEIZen ikerketa-jardueraren programazioak eta haren helburu nagusiak ikerketa-jarduera bera eta haren emaitzen transferentzia direla onartzen duen proiektu bati ematen dio erantzuna. Halaber, pertsonal irakasle eta ikertzailearen prestakuntza eta mugikortasuna izango dira ere proiektuaren helburuak.

- Ondorengo puntu ahulak ikusten dira:

1) Kirol-osasunean jartzen du fokua. Ezarritako ikerketa-ildoak gauzatzeko teknologia digitalen arloko gaitasunak beharrezkoak direla ematen duen arren, ez du eduki digitalen garapenari, are gutxiago musika-ekoizpenari, zuzenean lotutako ikerketa-plan bat dagoenik ematen. Horregatik, ikerketa-plana aurreztutako irakaskuntza-eskaintzaren % 50i besterik ez dagoela lotuta ematen du.

Titulazio ofizialei lotuta dauden arlo zientifikoetan ikerketa-jardueraren programazio bat aurkeztu behar dela zehazten du 420/2015 errege dekretuak, baina ez du programazio hori arlo batean edo bestean proportzio handiagoan edo txikiagoan kontzentratzea eragotzen. Gainera, lehenago ere adierazi denez, teknologia berriak Fisioterapiaren eta Gorputz Jarduerako eta Kiroleko Zientzien eremuan aplikatuko eta integratuko dituen prestakuntza espezifiko bat planteatzen du proposamenak. Horregatik, ikerketa-proiektuak bi arloak lotzea ere aurreikusten du.

2) Dauden ebidentzien arabera, fondoak jasotzeko gaitasuna izango duten ikerketa-talde emankorrak eratu ahal izateko moduko merezimenduak ez ditu, ikerketaren arloan, dagoen pertsonalak.

420/2015 errege dekretuak ez du pertsonal ikertzailearen merezimenduak proiektuari gehitzea exijitzen eta, gainera, aurrekoa ikuspuntu subjektibo hutsa da. Horretaz gain, EUNEIZen aurreztutako proiektuak pertsonal irakasle eta ikertzailearen plantilak agertzen dituela berresten da, eta plantila horiek irakasle eta ikertzaileen izenak eta merezimenduak sartzen dituzte.

3) Anbiguasuna, talentua erakartzeari eta ikerketa-karrera gauzatzeari begira. Kontrastatzeko moduko ikertzeko gaitasunak izango dituzten irakasleen talde bat nola ziurtatuko den ez da zehazten.

Behin eta berriro balio-judizioak ematen ditu Unibasq-ren txostenak. Aurreztutako planak talentua deialdi irekien bidez erakartzea eta talentua eta ikertzeko gaitasuna garatzeko programak sustatzea proposatzen ditu, baina proiektuaren fase honetan ez dira zehaztu behar.

4) Denbora osoan ari diren irakasleen dedikazioa aurrez aurreko 324-360 eskola-ordukoa izatea planteatzen da, eta horrek ikerketarako geratzen den denbora oso murrizta izango dela pentsatzera eramaten du.

Benetan harritzeko modukoa da baieztapen hau. Unibertsitate pribatu, unibertsitate-zentro pribatu eta gradu-ondoko prestakuntzarako zentroentzako VIII. hitzarmen kolektibo nazionalak 18. artikuluan xedatzen duenez, pertsonal irakasle eta ikertzaileak 1685 orduko lanaldi oso bat izango dut urtean eta, haietatik, 613 izango dira irakaskuntzan aritzeko eta 172 gainontzeko jardueretarako. Horregatik, ikerketan aritzeko 253-289 ordu gehiago (% 40-47) izango ditu EUNEIzko pertsonal ikertzaileak, beste unibertsitate batzuetan normalean dutena baino gehiago. Horregatik,, Unibasq-eren txostenean egiten den baieztapena guztiz funtsik gabekoa da.



- 5) *Ikerketa-arlo kritikoen definizio-faltak azpiegitura espezifikoen ebaluazioa zailtzen du, oso era orokorrean deskribatzen direlako.*

Aurkeztutako memorian adierazten denez, ikerketa-arlo kritikoen definizioa izango da Ikerketa Planean aurrera eramango den lehen jardura. Gainera, definitzeko eredu gisa baliagarri diren bost adibide azaltzen dira. Bestalde, ikerketarako erabiliko diren azpiegitura eta laborategiak zehazten dira.

- 6) *Aurrekontuan sartutako kopuruak (100.000 €, 136.000 €, 209.000 €, 268.000 € eta 282.000 €) ez du aurrera eraman nahi diren jardueren kopuru zabala finantzatzeko adinakoa izango direnik ematen. Aurkezten den emaitzen kontuan kopuru horiek horrela desglosatzen dira: % 85 pertsonal ikertzailearen kostua, eta % 15 materialen kostua.*

Lehenik eta behin, memoriak KPMG aholkularitzak egindako planifikazio ekonomiko zorrotz bat agertzen duela adierazi behar dugu. Planifikazio horrek aurkeztutako negozio-planak ez duela finantzatzeko arazorik ziurtatzen du, hasieran aurkeztutako ekarpena 3 milioi eurokoa dela eta behar den finantzazioa kapital hori baino txikiagoa dela kontuan hartuta.

Bigarrenik, Unibasq-ren txostenean berriz ere kontraesan bat dagoela nabarmendu behar da. Alde batetik, ikerketa-plana ez dela nahiko adierazten da; bestetik, nahiko finantzaziorik izango ez duten jardueren kopuru zabal bat eramango dela aurrera esaten da aurreko oharrean.

Zuzendaritzak duela ikerketaren aldeko konpromiso irmoa adierazten du talde sustatzaileak (horrela jasota agertzen da KPMGren memorian eta exekuzio-laburpenean). Proiektuan jasotako zenbatekoek ikerketa-jarduerarako baliabide egonkorren hornikuntza bat agertzen dute, diru-sarreraren guztizkoaren % 6,1ekoa dena funtzionamenduaren lehen urtean, 100.000 €ko gutxienezko konpromisoarekin, gehi % 4koa urtean. Gainera, ikerketari eskainitako aurrekontua areagotuko luketen deialdi desberdinetan parte hartzeko asmoa dago.

Ministerioko zerbitzu tekniko hauen iritziz, planteamendu hauetatik ezin da indarreko legeriak exijitutako baldintzak bete ez direnik inolaz ere ondorioztatu (420/2015 errege dekretuak ez du unibertsitateek helburu horretarako erabili behar duten zenbatekoa konkretatzen). Aitzitik, eta paperean gutxienez, konprometitu diren zifrak beste unibertsitate pribatu batzuek erabili dituztenak baino dezente handiagoak dira.

- 7) *Desadostasun kronologikoak daude hainbat urtetako programazioan, 2018-2023ko aldiaz ari baita zenbait kasutan, eta 2019-2023koan beste batzuetan.*

Seguru asko, aurreko desadostasuna akats bat besterik ez da, unibertsitatearen sustatzaileek une batean eskatutako lehen espedientea hasi zenetik pasa den denborak eragindakoa.



3. dimentsioa: behar adina pertsonal irakasle eta ikertzaile, trebakuntza egokiarekin, izatea

Maiatzaren 29ko 420/2015 errege dekretua

420/2015 errege dekretuak 7. artikuluan ondorengo puntuak xedatzen ditu:

- Unibertsitate bakoitzeko pertsonal irakasle eta ikertzailearen kolektiboko kideen guztizko kopurua kalkulatzeko, **1/25 erlazioa aplikatu beharko da** unibertsitate-irakaskuntzetan **matrikulatutako ikasleen guztizko kopuruari begira**, eta irakasle eta ikertzaileen kopurua ezin izango da operazio horren emaitza baino txikiagoa izan. Ratio hori denbora osoko dedikazioan ari diren pertsonal irakasle eta ikertzaileari buruzkoa dela interpretatuko da, edo irakasle eta ikertzaile horien denbora partzialeko baliokideei buruzkoa.
- Ondorengo kideek osatuko dute, gutxienez, irakaskuntza-eta ikerketa-jardueretan ari diren unibertsitateetako pertsonala:
 - a) Doktoreen ehuneko berrogeita hamarrek, Graduko titulu bat lortzera bideratutako irakaskuntzetarako.**
 - b) Doktoreen ehuneko hirurogeita hamarrek, Masterreko titulu bat lortzera bideratutako irakaskuntzetarako.**
 - c) Doktoretzako irakaskuntza ematearen ardura duten unibertsitateko irakasle guztiek doktorearen titulua izan beharko dute.**Ondorio horietarako, irakasleen guztizko kopurua denbora osoko dedikazioan ari diren baliokideen kopuruaren gainean eraikiko da.**

Doktorearen titulua ez duten irakasleek lizentziatuaren, arkitektoaren, ingeniariaren edo graduatuaren titulua, edo baliokideren bat, gutxienez, izan beharko dute, egin beharreko irakaskuntza-jardura gauzatzeko, oro har, diplomadunaren, arkitekto teknikoaren edo ingeniari teknikoaren titulua nahikoa dela Unibertsitateen Kontseiluak erabaki duen ezagutza-arloetan izan ezik. Kasu hauetan, eta arlo espezifiko horietan irakasteko, irakasleek aipatutako azken tituluetakoaren bat izatea nahikoa izango da.
- Irakasleen ehuneko hirurogeik, gutxienez, beren funtzioak denbora osoko dedikazio-erregimenean beteko dituztela bermatuko dute unibertsitateek.**
- Artikulu honetan aurreikusitako baldintzak egiaztatzeko, **pertsonal irakasle eta ikertzailearen plantila aurkeztu beharko dute jardueraren hasieran unibertsitateek**, baita, irakaskuntzak guztiz ezarri arte, urtean aurreikusten duten areagotzea ere.

Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorraren txostena	UNIBASQren txostena
Irakasleei lotutako gaia memoriaren atal espezifiko batean (142-163 orr.) jasota agertzen da. Emandako informazioak unibertsitateak funtzionatuko duen lehen kurtsuan kontratatutak izango diren irakasleen izen-zerrenda sartzan du, baita unibertsitatea guztiz ezarri arte aurreikusten den plantilaren areagotzea ere. 152-156 orrietako tauletan zehatz-mehatz jasotzen dira titulazio bakoitzaren plantilak. Halaber, doktoreen ehunekoak, denbora osoko dedikazioan (36 ECTS kredituko dedikazioa) ari diren irakasleen kopurua eta denbora partzialeko dedikazioan (6, 9 eta 12 ECTS kreditu, kasuaren arabera) ari diren irakasleen kopurua adierazten dira. Gutxi gorabehera, 9 ordu finkatu dira ECTS kredituko, eta horrek denbora osoko irakasleko presentziazko 324-360 bat ordu esan nahi du. Doktoreen gutxienezko ehunekoari begira maiatzaren 29ko 420/2015 errege dekretuak ezartzen dituen exijentzien arabera da proposamena, bai graduko, bai masterreko titulazioetan. Hala ere, denbora osoko dedikazioan ari izango diren irakasleen ehunekoari erreferentzia eginez, emandako informazioa ez dagoela osorik adierazi behar da, irakaskuntzan parte hartuko duten irakasleen kopuruari buruzkoak baitira tauletan jasotako datuak; izan ere, badira titulu bat baino gehiagotan irakatsiko duten denbora partzialeko irakasleak eta, horregatik, ezin izan da araudiak zehazten duen gutxienezko % 50ekoa betetzen de edo ez zehaztu.	<i>Ez dira behar adina betetzen 420/2015 errege dekretuan exijitzen diren baldintzak.</i> <i>Tauletatik ondoriozta daitekeenez, denbora osoan ari izango den pertsonala ez da irakasleen guztizkoaren % 60 izatera iritsiko.</i> Gai honetan bi txostenak bat datoz. Dena den, elkarte sustatzaileak du gai hau argitu ahal izateko dokumentazio gehiago aurkezteko aukera; izan ere, eta tauletan jasota agertzen denez, izango dira titulazio batean denbora partzialean ari izango diren irakasleak baina, titulazio desberdinetan klaseak emateagatik, irakasle horiek lanaldi osoa izango dute. Edonola ere, zuzen daitekeen puntua da eta jardura akademikoak hasi aurretik egiaztatu daiteke. <i>Pertsonal irakasle eta ikertzailearen hizkuntz gaitasunari eta, aurreikusitako titulazioak emango diren hizkuntzei begira, gai horren planifikazioari buruzko informazio gehigarria eman beharko litzateke.</i> Horri dagokionez, hau aipatu behar da: memoriaren 185. orrian adierazten denez, irakaskuntzak hiru hizkuntzatan: gaztelania, euskara eta ingelesa, emango dira. Edonola ere, ez da 420/2015 errege dekretuak exijitzen duen baldintza.



Hala ere, ikasle/irakasleko ratioak balore optimoak ditu; izan ere, araudiak 25 ikasleko irakasle 1 exijitzen duen arren, zifra ia erdira murrizten da EUNEIZ unibertsitatearen kasuan. Bestalde, irakasleak kontratatzek erabiliko diren irizpideak definitzen dira memorian eta irizpide horiek meritokraziaren printzipioa dute oinarri. Halaber, kudeaketa-karguetan aritzeagatik eta berrikuntza-, prestakuntza- edota ikerketa-jarduerarengatik aplikatuko diren murrizpenak adieraziko dira. Hitz batean, 420/2015 errege dekretuak 7. artikuluan exijitzen dituen baldintzak betetzen dira, denbora osoko dedikazioan ari diren irakasleen % izan ezik. Horregatik, Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorren txostenak azken ohar hau sartzen du: “Eman diren irakasleei buruzko datuek ez dute denbora osoan ari diren irakasleen ehunekoa kalkulatzeko aukerarik. Horregatik, jarduera akademikoa hasi aurretik, irakaskuntza-plantilaren % 60, gutxienez, denbora osoko dedikazioan ari direla egiaztatatu beharko da”. Horregatik, Unibertsitatearen jarduera akademikoa hasi aurretik, aurreko puntua,- zuzen daitekeelako ez dela erabakigarria esan du Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorra,- betetzen den egiaztatatu beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunak.	<i>Informazio hau falta da: nortzuek irakatsiko dute denbora osoan?; nortzuek emango dituzte graduak eta masterrak?; zein titulaziotan hartzen dute parte? eta, batez ere, haien curriculumak zeintzuk dira? Haietako bakoitzak zein titulaziotan irakatsiko duen jasota agertu beharko litzateke, baita indarreko legerian exijitzen diren irakasleen proportzioak eta Agentziak ezarritako irizpideak betetzen direla ziurtatzea ere.</i> 142-177. orrietako tauletan zehatz-mehatz agertzen dira titulazio bakoitzaren plantilak, baita irakasleen izena, titulua, maila, kategoria eta ezagutza-arloa ere. Dena den, Euskal Agentziaren iritziz emandako informazioa nahikoa ez bada, elkarte sustatzaileari eskatu ahal dio. <i>Kontratazio-proposamena da, baina gaur egun ez dago proposamena egiten duen elkartearen eta aipatutako irakasleen arteko inolako loturarik eta, horregatik, ez dago lotura hori benetan gertatuko dela bermatzerik.</i> 420/2015 errege dekretuak ez du horri buruz ezer esaten. Berrir ere iritzi subjektiboa da eta, gainera, konpromiso izenpetu bat eskatuz zuzen daiteke. Dena den, eta konpromisoa izenpetu arren, ez dago inoiz ere irakasle bat unibertsitatean hasiko dela bermatzerik, hasteko borondatea duela adierazi ondoren kontrakoa esan dezakeelako. Edonola ere, administrazio autonomikoko organo eskudunak geroagoko une batean, jarduerak hasteko baimena emateko prozeduran esate baterako, baloratu beharko du irakasleen baldintzak zorrotz betetzen diren edo ez. <i>Ez da irakasleak hasiko diren urtea adierazten.</i> Begi-bistakoa denez, unibertsitateak bere jarduera akademikoa hasten duenean sartuko dira irakasleak. Beraz, unibertsitatearen ezagutza gertatzen den dataren menpe egongo da irakasleen sartzea. Horregatik, dimentsio honetan dedikazio osoko irakasleen ehunekoa izan daitekeela 4020/2015 errege dekretuak xedatutakoaren kontra joan daitekeen alderdi bakarra ikusten da, eta puntu hau argi edo zuzen daiteke. Hitz batean, Unibasq-ek dimentsio honetan aurkeztu dituen argudioen artean kontrako txostena eragin dezakeen bat bera ere ez dagoela ikusten da.
--	---

4. dimentsioa: funtzioak betetzeko behar diren instalazio, bitarteko eta baliabide egokiak izatea.

Maiatzaren 29ko 420/2015 errege dekretua

420/2015 errege dekretuak 8. artikuluan xedatzen duenez, irakaskuntza- eta ikerketa-funtzioetan aritzeko behar diren azpiegitura eta bitarteko material egokiak izan beharko dituzte, gutxienez, unibertsitateek, irakaskuntza motari begira eta matrikulatutako ikasleen guztizkoa kontuan hartuta. Azpiegitura eta bitarteko material horiek baldintza funtzional egokiak izan beharko dituzte eta eman beharko dute irakaskuntza- eta ikerketa-jardueretan aritzeko aukera. Edonola ere, ondorengo atalak izan beharko dituzte:

a) Irakaskuntza- eta ikerketa-espazioak. Aurreikuspenen arabera aldi berean erabiliko dituzten ikasleen kopuruaren arabera izango dira espazio horien kopurua eta azalera.

Ikaskuntzarako eta Ikerketarako Baliabideen Zentroa (CRAI). Horretarako erabiliko diren eraikinak edo zerbitzu fisiko edo birtualek, unibertsitate-liburutegiaren zerbitzuek barne, eman beharko dute matrikulatutako ikasleen guztizkoaren ehuneko hamar batek, gutxienez, aldi berean erabiltzeko aukera.

c) Hornikuntza informatikoa:



3. Edonola ere, lan-arriskuak prebenitzeko eta akustika eta bizi-egokitasunari begira indarreko legeriak exijitzen dituen baldintzak bete beharko dituzte unibertsitate-instalazioek. Halaber, eta aplikatzeko moduko araudian xedatutakoaren arabera, pertsona elbarrituak sartu eta mugitu ahal izateko moduko baldintza arkitektonikoak bete beharko dituzte.

I. ERANSKINA :

Instalazioak egokiak diren baloratzeko gutxienezko moduluak.

a) Gelak:

Berrogei ikaslera arte: metro bat eta berrogeita hamar zentimetro karratu ikasleko.

Berrogei ikasleliko gora: metro 1 eta hogeita bost zentimetro karratu ikasleko.

b) Irakaskuntza-laborategiak: bost metro karratu irakaskuntza-talde bati esleitutako ikasleko. Modulu hori egokitu ahal izango da, ematen dituen irakaskuntza ofizialen irakaskuntza praktikoari begirako premien arabera. Espazio horretan gune bat erreserbatu beharko da, aldagela eta laborategian norberak bere burua babesteko jantziak zaintzeko.

Laborategi horiek geletatik eta tutoretza-aretoetatik aparte egon beharko dute.

c) Ikerketa-laborategiak: 10-15 metro karratu irakasle edo ikertzaileko. Laborategi horiek ikasleen pasabideetatik aparte egon beharko dute eta ez dira irakaskuntza-lanetarako erabili behar.

Irakatsi eta ikasteko modalitate desberdinetarako egokitzeko behar den malgutasuna, espazioari eta mobiliarioari begira, izan beharko dute irakatsi eta ikertzeko espazioek.

Irakasleen bulegoek ekipo informatiko eta komunikatzeko ekipo egokiak izan beharko dituzte.

II. ERANSKINA

Osasun Zientzien eremuko irakaskuntzetarako exigentzia bereziak.

a) Medikuntzako, Erizaintzako eta Fisioterapiako irakaskuntzetan ondorengo puntuak bermatu beharko dira:

1.º Ospitale bat eta Lehen Arretako hiru zentro (titularitate publiko edo pribatukoak), itun batean (unibertsitate publikoen kasuan) edo hitzarmen batean (pribatuen kasuan) oinarrituta, izan beharko dituzte, gutxienez, unibertsitateak.

2.º Osasunaren eta unibertsitateen arloetako ministerio eskudunek beren artean ezartzen dituzten baldintzak (giza baliabideen eta baliabide materialen hornikuntzari begira) bete beharko dituzte osasun-erakundeek.

b) .º Hitzartzen diren osasun-erakundeen zerbitzuak eta haiei lotuta dauden unibertsitate-departamentu edo unitateak adieraziko ditu itunak edo hitzarmenak

Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorraren txostena	UNIBASQren txostena
Hasiera batean, Vitoria-Gasteizko Biosfera pasealekuaren 6.ean, Bakh kirol-gunearen eta Baskonia saskibaloit-taldeak jokatzeko Fernando Buesa Arena pabilioiaren ondoan, kokatuko da unibertsitate berriaren egoitza. 1.016,49 m²-ko azalera bat beteko du egoitzak lehen urtean, eta 2.144,57 m²-koa bigarren urtean. Halaber, eta aurreikuspenen arabera, Gorputz Hezkuntzako eta Kirolen Graduaren jarduerak gauzatzeko erabiliko dira Alaves Kirol Klubaren instalazioak, Mendizorrotzako futbol zelaia barne. Eraikin horrek Osasun Zientzien fakultatea eta Eduki Digital Interaktiboaren fakultatea hartuko ditu. Instalazioek gelak, laborategiak eta guztientzako espazio desberdinak sartuko dituzte. 242-248. Orrietan instalazio horien planoak erakusten dira.	- Jarduerei hasiera emateko, 2.200 m²-ko eraikin bat alokatu behar du unibertsitateak. Alokaturako espazioak itxuraz ez dira nahiko. Ezin da “itxuraz ez dira nahiko” esan. Nahiko dira edo ez, nahiko izan arren ez dutela ematen interpreta baitaiteke. - Eraikin horretan ez dira Osasun Zientzien fakultatean praktika-gelak aurreikusten eta, horregatik, jardueren % 100 kanpo zentroetan gauzatuko dira. Praktika horietarako hitzarmen batzuk gaineratzen dira. Haien jardura nagusia profesionalen prestakuntza ez den beste zentro batzuekiko menpekotasunean jartzen du egoera honek unibertsitatean. - Edonola ere, praktikak emango diren zentro gehienak Unibertsitatearen kapitalean akziodun minoritario gisa parte hartzen duten enpresetakoak dira.



Maiatzaren 29ko 420/2015 errege dekretuak I. eranskinean eskatutako dimentsioen arabera gelak azaltzen ditu proiektuak, hots, baliabide-zentrorako (CRAI) espazioak, grabazio- eta ekoizpen-estudioak eta informatika-gelak. Hala ere, ez da liburategirako tokirik erreserbatu, Sancho Jakintsua fundazioarena den liburategia erabiltzeko hitzarmen bat fundazio horrekin izenpetu den arren.

Ikerketarako behar diren azpiegiturei dagokienez, EUNEIZek, jarduera akademikoa hasiko den unetik, ondorengo instalazioak izango dituela adierazten da: Osasun Zientziak irakasteko 150 m²-ko laborategi bat eta 300 m²-ko ikerketa-laborategi bat Buesa Arena kirol-pabilioian, eta 60 m²-ko ebaluazio-unitate satelite bat BAKH kirol-zentroan. Halaber, 200 m²-ko Gamifikazioko laborategiak eta 380 m²-ko Ikerketa Aplikatu funtzio anitzeko laborategiak Buesa Arena kirol-pabilioian kokatuko dira.

Memorian adierazten denez, lehen bi urteetan funtzionatu ondoren Deportivo Alavesen etorkizuneko kirol-hirian eraikin bat, 4.500 m²-ko azalera hartuko duena, izatea aurreikusten du elkarte sustatzaileak. Eraikin horrek geletarako, liburategirako, ikasteko aretoetarako, enpresa-proiektuen gunerako, laborategietarako, bulegoetarako, kirol-instalazioetarako (igerilekua, atletismo-pista, pabilioia, futbol-zelaia, erabilpen anitzeko aretoak, ...) eta beste espazio bateratu etarako espazioak hartuko ditu.

Ondorengo hau nabarmendu behar da: ez dira Deportivo Alaves kirol-klubaren etorkizuneko kirol-hiriaren proiektua, aipatutako eraikina eraikitzeko proiektua eta berorren planoak aurkezten eta, beraz, zein fasetan dagoen ez dakigu.

Bestalde, Osasun Zientzien eremuko irakaskuntzen kasuan, Fisioterapiako irakaskuntzetan unibertsitateak hitzarmen bat ospitale batekin eta Lehen Arretako hiru zentrorekin, gutxienez, izatera behartzen du aipatutako errege dekretuak II. eranskinean.

Baldintza hori betetz, Fisioterapiako ikasleek derrigorrean egin beharreko kanpo praktikak egiteko ondorengo erakundeekin egindako hitzarmenak aurkezten dira: San Jose VITHAS ospitalea eta erakunde laguntzaile hauek: Laubidea SLP Osasun Zerbitzuak; Club Deportivo Alaves; SAD; FISIO S.C. zentroa; YON MAESO Fisioterapia zentroa, eta IGARO S.C. Osteopatia zentroa. Guztiak Vitoria-Gasteizen daude kokatuta.

Arestian azaldutako guztitik ondorioztatzen denez, funtzionatuko duen lehen bi urteetan aurrera eraman nahi dituen irakaskuntza- eta ikerketa-funtzioak gauzatzeko behar diren azpiegitura eta bitarteko materialak izango ditu EUNEIZek. Dena den, aldi hori pasatu ondoren unibertsitateak, bere jarduera jarraitzeko, espazio egokiak izango dituela bermatu beharko du elkarte sustatzaileak

Hau ahazten zaio Unibasq agentziari: uztailaren 3ko CIN/2135/2008 aginduak, fisioterapeutaren lanbidean aritzeko trebatzen duten unibertsitate-titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak, zehazten duenez, ondorengo gaitasuna eskuratu behar dute, besteak beste, ikasleek:

“Trebetasun intelektualak, trebetasun teknikoak eta esku-trebetasunak emango dituen esperientzia kliniko egokia eskuratzea; esperientzia horri esker, balore etiko eta profesionalak errazago barneratu eta eskuratutako ezagutzak integratzeko gaitasuna garatuko dute ikasleek. Horiek horrela, ikasketak bukatzean ezagutza horiek kasu kliniko konkretuetan, ospitale- eta ospitale kanpoko eremuetan, eta lehen arretan eta arreta komunitarioan egin beharreko jardueretan aplikatzen jakingo dute ikasleek “.

Halaber, agindu horrek tutoretzapeko ECTS kredituen kopuru bat zehazten du. Zehatzago esanda, hau zehaztuko du: “praktika profesionalak, rotatorio kliniko independentearen forman eta gaitasunen azken ebaluazioa eginez, osasun-zentroetan, ospitaleetan eta beste laguntza-zentro batzuetan. Praktika profesional horiei esker, arlo guztietan eskuratutako ezagutza, trebetasun, jarrera eta balore guztiak integratu ahal izango dituzte ikasleek.

Beraz, eta 420/2015 errege dekretuak II. eranskinean adierazten duenez, ospitale- eta kanpoko laguntza-zentroetan egin behar dira praktikak.

Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorren txostenean adierazten denez, aipatutako baldintzak betetzen ditu Unibertsitateak.

Bestalde, nolabaiteko kontraesanetan sartzen da Unibasq-ren txostena; izan ere, Unibertsitatea kanpo zentroen menpe dagoela esaten du eta, era berean, haietako batzuek unibertsitateko akziodun gisa parte hartzen dutela adierazten du. Dena den, zirkunstantzia hori iritzi guztiz subjektiboa da.

- *Osasun Zientzien fakultatean 4 gela izango lirateke eta horrek bakarrik emango luke lau titulazioetako lehen kursoa hartzeko aukera. Goiz eta arratsaldeetan programatuz bigarren kurtsoa toki izango litzateke. Gradu bikoitzeko ikasleentzat, gradu hori aparteko taldean ematen bada, ez litzateke espaziorik izango eta, ikasle horiek graduetako taldeei gehitzen bazaizkie, 85 ikasle berriko kopurua (60 + 25) lor liteke, eta ikasle horiek ez lirateke tamaina handieneko gelan (80ko edukiera) kabituko.*

Egiten diren baieztapenak ez datoz aurkeztutako datuekin bat.

Lehenik eta behin, lehen urtean emango diren lau graduak bi eremuetakoak dira. Bigarrenik, hirugarren urtean, instalazio berriak aurreikusten direnean, emango da gradu bikoitza eta, hirugarrenik, 100 m²-tik gorako bi gela (bat praktikoa) daude.

Lehen bi urteetarako espazioak baieztatzeko, ondorengo taulan taldeak banatzeko era bat simulatzen da:



TALDEAK	LABURDURA	2.URTEAA	
		1º	2º
Fisioterapiako gradua	F	60	60
Gorputz eta Kirol Jarduerako Zientzietako gradua	CAF	40	40
Eduki Digital Interaktiboetako gradua	GCD	40	40
Bideo-jokoetarako eta Jokoetarako Arte Sormeneko	GCA		40
Musika Ekoizpeneko gradua	GPM	40	40
Gorputz Jarduerara eta Kirol Lehiaketara Berregokitzeako gradua	MR*	25	25
Kirol Teknikakizko gradua	MT		25

(*) 25 ikasleko talde bat bakarrik urte bakoitzean

2. KURTSAKO GELAK BANATZEKO SIMULAZIOA

GELAK	DIMENTSIOA	GOIZEKO ORDUTEGIA	ARRATSALDEKO ORDUTEGIA
A 1	62,98 m2	GPM 1	GPM2
A 2	59,83 m2	GCD 1	GCD 2
A 3	61,87 m2	GCA 1	MR
A 4	100,54 m2	CAF 1	CAF2
A 5	102,05 m2	F1	F2
AP1	58,78 m2	MT(*)	
AP2	59,78 m2		
AP3	197,97 m2		

(*) Praktiken ordu-banaketa ikusi behar da talde bakoitzean, errotatzeko dauden gelak ikusteko.

Ikus daitekeenez, lehen bi urteetarako espazioak egokiak dira, araudiaren arabera.

- Zein instalazio egongo den eskura ez da argi geratzen memorian.

Atal honetan adieraz daitekeenez, lehen bi urteetan izango diren espazioak eta hirugarren urtetik aurrera erabiliko dituztenak argi bereizten ditu proiektuak. Biak erabiliko diren espazio eta denborarako egokiak dira. Dena den, eta Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorren txostenaren ondorioetan adierazten denez, aldi hori pasa ondoren unibertsitateak bere jardura jarraitu ahal izateko espazio egokiak izango dituela bermatu behar du elkarte sustatzaileak.

- Informatika-gelak, alokatutako espazioetan eta eraikitzea aurreikusten den eraikinean, ez luke talde handi bat hartzeko moduko edukierarik.

Lehen bi urteetarako alokatutako espazioetan kontuan hartzen diren informatika-gelen edukiera talde txikiak hartzeko modukoa besterik ez dela egia den arren, egia da ere taldeak bikoiztu daitezkeela. Horretaz gain, gaur egun unibertsitate-ikasleek edozein espaziotan erabili ahal izateko moduko eskuko ordenagailuak dituztela hartu behar da kontuan. Gainera, espazioen bat berriro banatzea proposa liteke, dimentsio handietako espazioak, irakasle-gela esate baterako, ikusten baitira planoetan.

Hirugarren urtetik aurrera aurreikusten diren espazioak eraikin berrian hartzen dira kontuan. Zehatzago esanda, ikasle bakoitzarentzat ordenagailuak izango dituzten eta 40/60/80 pertsonarentzat edukiera duten informatika-gela desberdinak proiektatzen dira.



	• <i>Ikerketa-guneak ere ez dira ondo deskribatzen memorian eta unibertsitatearen ikerketa-proiektua hasiberriaren fasean dagoela adierazten duen beste zantzu bat da.</i> Ikerketarako behar diren azpiegituren arloan memorian adierazten denez, Osasun Zientzietan irakasteko 150 m²-ko laborategi bat, 300 m²-ko laborategi bat Buesa Arena kirol-pabilioian eta 60 m²-ko ebaluazio-unitate satelite bat BAKH kirol-zentroan izango ditu, jarduera akademikoari hasiera emango dion unetik, EUNEIZek. Halaber, Eduki Digital Interaktiboen fakultateko laborategiak- 200 m²-ko Gamifikazioko laborategia eta 380 m²-ko Ikerketa Aplikatuko funtzio anitzeko laborategiak- Buesa Arena kirol-pabilioian kokatuko dira. Horregatik, emandako informazioa oso argia eta zehatza da.
--	--

Beraz, ondorengo ondorioztatzen da: EUNEIZ unibertsitate pribatua ezagutzeko proiektuak ez dituela maiatzaren 29ko 420/2015 errege dekretuak, unibertsitate eta unibertsitate-zentroak sortu, ezagutu, baimendu eta kreditatzeari buruzkoak, egiten dituen exigentziak betetzen esan ahal izateko moduko argudio irmoak ez dira Unibasq-ren txostenean aurkezten.

Madrid, 2019ko azaroaren 19a



EUNEIZ UNIBERTSITATEA EZAGUTZEARI BURUZKO ESPEDIENTEARI TXOSTENA EGITEKO PROPOSAMENA

EUNEIZ (TEKNOLOGIA BERRIEN, KIROL ETA OSASUN UNIBERTSITATEA) izeneko unibertsitate pribatua ezagutza eskatzeari buruzko espediente, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzatik datorrena, sartu da, 2019ko urtarrilaren 21ean, Unibertsitateen Idazkaritza Nagusian, Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorrek txostena eman dezan, abenduaren 21eko 6/2001 lege organikoak, Unibertsitateenak, apirilaren 12ko 4/2007 lege organikoaren bidez aldatuak, 4.5. artikuluan xedatutakoaren arabera. Unibertsitate hori sortu eta ezagutzeko proposamen horren kontrako txostena eman du, 2019ko apirilaren 23an, Unibasq- Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak.

AURREKARIAK

Informatzen den proiektua EUNEIZ unibertsitatea sortu eta ezagutzeko elkarte sustatzaileak aurkezten duen bigarren proiektua da. Lehenak, 2017ko azaroaren 15ekoak, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren kontrako txostena izan zuen. Halaber, Unibertsitateen Idazkaritza Orokorreko zerbitzu teknikoek egindako txostena ere kontrakoa izan zen. Dena den, txosten hori ez zuten Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorrean baloratu, elkarte sustatzaileak uko egin baitzion eskaerari. Bigarren proposamen honetan, proiektua birformulatu duela adierazten du, UNBASQ-k egindako oharra kontuan hartuta.

1. Erakunde sustatzailea

EUSTEIZ 2018, S.A. lagun bakarreko merkataritza-konpainia da eskaeraren sustatzailea, eta administratzaile bakarra Iñigo Sánchez de Movellán Torrent jauna da. ULENI 30 S.L. merkataritza-konpainiak eratu zuen arestian aipatutako sozietatea eta partizipazioen % 90 du, gainontzekoak Saski Baskonia S.A.D-ri eman baitzizkion. Haren helburu sozialak hauek dira: Goi Graduak, Masterreko eta Gradu ondoko irakaskuntzak, goi mailakoa ez den Lanbide eta hobekuntza profesionaleko irakaskuntza, Batxilergoa, unibertsitate-orientatutakoa, lanbide heziketa, erdi eta goi mailako Lanbide Heziketa espezifikoak eta mota guztietako etengabeko prestakuntza. Kapital soziala 3.000.000 eurokoa da, euro banako 3.000.000 akziotan banatua. Haletatik, gaur arte 1.500.000 € ordaindu dira.

Elkarte sustatzailearen helbide soziala Vitoria-Gasteizko (Araba) Pedro Asua kalearen 69-73an, beheka, dago kokatuta.

EUNEIZ unibertsitate-proiektuak goi hezkuntza bat eskaini nahi du teknologia berrien eremuan eta, horretarako, Teknologia berrien arloak eta Kirol eta Osasun Zientziak integratu nahi ditu.

Proiektuan, erakunde sustatzaile gisa, Vitoria-Gasteizko kirol-klub nagusietako bi, Saski Basconia SAD eta Deportivo Alaves, inplikaturik daudelarik nabarmen du memoriak. Unibertsitate berriak Arabako Foru Aldundiaren eta Vitoria-Gasteizko Udaleren laguntza instituzional eta soziala dituela ere azpimarratzen du.

Halaber, EUSES-UdG/ EUSES-URV-ko (Escuela Universitaria de la Salud y el Deporte, Gironako Unibertsitateari eta Tarragonako Universitat Rovira i Virgili-ri atxikia) eta ENTI-UBko (Escuela de Nuevas Tecnologías Interactivas, Bartzelonako Unibertsitateari atxikia), proiektuaren sustatzaileak direnak, emango duten esperientzia akademikoaren garrantzia adierazten da.

Bestalde, unibertsitate berriak Arabako BPGri 29 milioi euro emango dizkiola eta 400 lanpostu baino gehiago sortuko dituela jakinarazten da.

2. Eredu akademikoa eta irakaskuntza-eskaintza



Teknologia berriak Fisioterapiaren eta Gorputz Hezkuntzako eta Kiroleko Zientzien eremuan aplikatu eta integratuko dituen prestakuntza espezifiko bat planteatzen du Teknologia Berrien, Kirolaren eta Osasunaren Unibertsitateak (EUNEIZ).

Bi fakultateren inguruan eratzen da eskaintza akademikoa: Osasun Zientzien fakultatea eta Teknologia Berri Interaktiboen fakultatea.

Aurreikusten den tituluen eskaintza ondorengo hau da:

- **Osasun Zientzien fakultatea**
 - Fisioterapiako gradua (240 ECTS)
 - Gorputz Hezkuntza eta Kirolaren Zientzietako gradua (240 ECTS)
 - Gorputz Hezkuntza eta Kirolaren Zientzietako eta Fisioterapiako gradu bikoitza (382 ECTS)
 - Gorputz Hezkuntzara eta Kirol Lehiaketara Berregokitzeako unibertsitate-masterra(60 ECTS)
 - Kirol Teknikazioko unibertsitate-masterra (60 ECTS)

- **Teknologia Berri Interaktiboen fakultatea**
 - Eduki Digital Interaktiboetako gradua (240 ECTS)
 - Bideo Jokoetarako eta Joko Aplikatuetaarako Arte Sormeneko gradua (240 ECTS)
 - Musika Ekoizpeneko gradua(240 ECTS)
 - Eduki Digitalen Ekoizpeneko eta Ekintzailatzako gradua (60 ECTS)

Guztira, 5 graduako, gradu bikoitzeko 1 eta 3 masterreko eskaintza bat proposatzen da. Horrela betetzen da 420/2015 errege-dekretuak 6.1. artikuluan exijitzen duen gutxienezko 8 titulazioen baldintza.

Gainera, doktoretza-programak, Masterreko berezko tituluak, Unibertsitateko espezialistaren tituluak, Etengabeko Prestakuntzako Irakaskuntzak eta ikastaro osagarriak artikulatu nahi ditu proiektuak.

Hau adierazi behar dugu: gradu eta masterren eskaintza akademikoa partzialki bat dator lehen aipatutako zentro katalan atxikiek, proiektu akademikoari euskarria emango diotenenk, gaur egun eskaintzen dutenekin.

Bere irakaskuntza-jarduera 2019-2020ko ikasturtean hasi nahi du EUNEIZek eta hau adierazten du: hasierako prestakuntza-eskaintza ezartzeko prozesua 2024-2025eko ikasturtean osatu ondoren, Doktoretza eskola sortuko da. Eskola horretan teknologia berrien eta osasun-zientzien arteko harremanetan zentratutako doktoretza-programa bat kokatuko da.

Teknologia Berri Interaktiboen fakultatean (beste atal batzuetan Eduki Digital Interaktiboen fakultatea esaten zaio; gai hori argitu beharko litzateke) proposamen akademikoa euskal unibertsitate-sisteman dagoen eskaintza/eskaerari buruz egin den analisisan justifikatzen da. Euskal Autonomia Erkidegoan ekonomia digitalaren markoan ez direla industria, entretenimendua, bideo-jokoak eta joko aplikatuak lantzerantz bideratutako graduak, proposatzen direnak bezalakoak, eskaintzen zehazten da. Halaber, gradu baliokideen eskaera gaurko eskaintza baino 1,64 aldiz handiagoa dela argudiatzen da. Beste horrenbeste gertatzen da planteatutako master ofizialekin.

Osasun Zientzien fakultateko ikasketei dagokienez, hau azaltzen da: EHUn eta Deustuko Unibertsitatean eskaintzen diren Gorputz Hezkuntzaren eta Kirolaren Zientzietako graduak ez bezala, EUNEIZek proposatutako graduak teknologia berriak integratuko dituen ikasketa-plan bat proposatzen da. Plan hori kirol-zuzendaritzaren eta berregokitzearen eremuetara bideratuta egongo da, Baskoniaren eta Deportivo Alavesen eskutik eta beste arlo profesional batzuk baztertu gabe.

Halaber, unibertsitate publikoan eta pribatuan dagoen eskaera handiarengatik, ez zaio azken urteetan erantzunik eman, justifikatzen da proposamena.

Hasiera batean, proposatutako bost graduetatik lau eskainiko dira. Datorren 2020-2021eko ikasturtean Bideo Jokoetarako eta Joko Aplikatuetaarako Arte Sormeneko gradua inplementatuko da, eta 2021-2022ko ikasturtean eskaintza akademikoa osatuko da, Gorputz Hezkuntzaren eta Kirolaren Zientzietako eta Fisioterapiako gradu bikoitzarekin, bost ikasturte iraungo duena. 2025-2026ko ikasturtean bukatuko du graduako ikasketa guztiak ezartzeko prozesuak.

Masterrei dagokienez, 2019-2020ko ikasturtean Gorputz Hezkuntzara eta Kirol Lehiaketara Berregokitzeako Masterra hasiko dela aurreikusten da. Beste bi masterrak hurrengo bi urteetan hasiko dira. Zehatzago esanda, 2020-2021eko ikasturtean Kirol Teknikazioko masterrari emango zaio hasiera, eta 2021-2022ko Eduki Digitalen Ekoizpeneko eta Ekintzailatzako masterra hasiko da.

Prestakuntza-erakunde dagokienez, "Titulazioak Garatzeko Plana " deritzon atal bat sartzen da memorian. Atal horretan zehatz-mehatz deskribatzen dira proposatutako zortzi titulu ofizialen ikasketa-planak.

Atal honetan hau nabarmendu behar dugu: hitzarmen desberdinak izenpetu dira erakunde laguntzaileekin, aipatutako gradu batzuetako ikasleek derrigorrean egin behar dituzten kanpoko praktikak gauzatzeko.



Dena den, aipatutako 420/2015 errege-dekretuak xedatutakoa gogorarazten dugu; izan ere, 6.2. a) artikuluan hau xedatzen du: "Kalitatea eta Akreditazioa Ebaluatzeko Agenda Nazionalak (ANECA), edo unibertsitatea finkatuko den autonomia erkidegoko kanpo ebaluaziorako organoak, UNIBASQ- Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak kasu honetan- ebaluatuko du titulazioak garatzeko unibertsitatearen plana

3. Ikerketa-proiektua

420/2015 errege-dekretuak 6.2 b) artikuluan eta III g) eranskinean xedatutakoaren arabera, ondorengo puntuei buruzko informazioa eman behar du irakaskuntza-memoriak: 1) Unibertsitatearen ikerketa-jardueraren hainbat urtetako programazioa; 2) talentu zientifikoa sartzeko, ikerketa-proiektu lehiakorretan parte hartzeko eta produkzioaren sektorearekin lankidetzan aritzeko erabili beharreko estrategiak; eta 3) ikertutako helburuak beteko direla ziurtatuko duten egitura espezifikoaren aurreikuspena.

EUNEIZen ikerketa-jardueraren programazioa memoriaren 3. kapituluaren (27-57. orr.) jasota agertzen da.

EUNEIZek etorkizuneko UNEIZ fundazioaren bidez artikulatzen du bere ikerketa-proiektua. Jarduera akademikoak hasi eta hurrengo urtetik kontatzen hasita eratuko da fundazio hori, ikertzaileek nazio eta nazioarte mailako lehiaketa publiko eta pribatuaren parte hartu ahal izateko.

Proiektuak ikerketa-planaren helburu desberdinak, baita 5 urtetan garatzeko estrategiak ere (32-39. or), hartzen ditu kontuan. Aurreikuspenen arabera, Ikerketa Aplikaturako erreferentzia-markoa definitu ondoren, ikerketa-jardueraren lau urteko lehen programazioa jarriko da martxan.

Adibide gisa, arlo zientifikoetan ikerketa aplikatuko programa desberdinak aipatzen dira. Programa horiek proposatutako graduako eta masterreko irakaskuntzei daude lotuta, lehen urteetan garatuko dira eta Osasun Zientzien eta Eduki Digitalen titulazioak lotzen dituzte.

1. *Fisioterapia, ariketa eta gamifikazioa, oso prebalenteak diren osasun-nahaste kronikoen prebentzioan eta tratamenduan.*
2. *Kirola, Ariketa eta Gamifikazioa, kirolariaren jardueraren fisikoko trebetasun psikologikoen entrenamendu integratuen programak diseinatzera, ezartzera eta aztertzerako bideratua.*
3. *Kirola eta gamifikazioa, lesio bat sufritu duten kirolari profesional eta zaletuengana baloratzeko eta entrenatzeko tresnak analizatu, diseinatu, aplikatu eta ebaluatzerako bideratua.*
4. *Fisioterapia, ariketa eta gamifikazioa, nerabezaro aurreko haur osasuntsuengan oinarritutako motrizitate-trebetasunak garatzeko.*
5. *Deporte, ariketa eta gamifikazioa, futbolaren jokoa, fisika ekologikotik abiatuta, diseinatu, ezarri eta aztertze aldera.*

Etorkizuneko unibertsitatean ikerketa sustatuko dela ziurtatzeaz gain, talentu ikertzailea erakartzeko borondatea ere adierazten da, deialdi irekien eta talentua eta ikertzeko gaitasuna aurrera eramateko programak sustatzearen bidez. Programa horiek pertsonal irakasle eta ikertzailearen arabera egongo dira egituratuta.

Halaber, pertsonal akademikoaren akreditazioa sustatzeko eta errazteko irakasleentzako karrera-plan bat ezartzeko asmoa adierazten da, eta lan zientifikoak argitaratzeko aurrekontu-partida bat erabiltzeko konpromisoa hartzen da.

Ikerketa sustatzeko sortu nahi den unitatearen babesean, - Ikerketa, Berrikuntza eta Irakasle Errektoretza-ordearen menpe egongo da unitate hori, - eramango da arestian azaldutakoa aurrera. Unitate horren bidez emango zaio pertsonal irakasle eta ikertzaileari proiektu lehiakorren deialdiei buruzko informazioa errazago sartzeko aukera eta finantzazioaren prestakuntza eta gaitasuna jasotzeko programa, baita gainontzeko jarduerak ere, koordinatuko da. Ikerketa akademiko eta ikertzailea finkatu ondoren, Ikerketa Emaizak Transferitzeko Bulego gisa (OTRI) eratuko da formalki aipatutako unibertsitatea.

Irakasleak kontratatuzko eta berorien ikerketa-jarduera ebaluatuzko kontuan hartuko diren jarduerak eta ikerketa-kalitatearen adierazleak zehazten ditu memoriak. Izan ere, adierazle horiek Unibasq-ek eta ANECAk erabilitako irizpideetan oinarritzen dira.

Ikerketa-proiektua konkretatzeko, Osasun Zientzien eta Teknologia Berri Interaktiboen fakultateetan espazio eta azpiegitura desberdinak aurreikusten dira. Funtzio anitzeko ikerketa-laborategi bat, 300 m²-koa, du Osasun Zientzien fakultateak, eta 200 m²-ko Gamifikazio laborategi bat eta 92 m²-ko 4 laborategi, ikerketarako, du Teknologia Berri Interaktiboen fakultateak.

Halaber, profesional eta kirol-klubekin, Baskoia Kluba eta Club Deportivo Alaves esate baterako, lankidetzan aritzeko asmoa azaltzen da memorian, kirolaren eremuan i + g + i-ko proiektuak gauzatzeko. Proiektu horien artean, besteak beste, kirolariarentzako, eliteko kirolariarentzako batez ere, teknika berritzaileak eta errehabilitazio-teknikak garatzea nabarmentzen da.

Finantzazioa da ikerketa-jarduerak konkretatzeko funtsezko alderdia. Kasu honetan, eta finantzazioari begira, ikerketa-jardueraren aldeko konpromiso zabal eta irmoa dute sustatzaileak; izan ere, diru-sarreraren % 6,1, 100.000 €ko gutxienezko kopuruarekin, erabiliko da unibertsitateak funtzionatzeko duen lehen urtean, eta, geroago, % 4 emango da urtero.

Ondorengo hau esanguratsua da: Harvard-eko Unibertsitatearekin lankidetzan aritzeko asmoa du proiektuak; izan ere, errehabilitazioaren arloan osasun eta kirolerako "serious game" protokolo bat garatzea, astebeteko ikastaro bat bien artean egitea eta aholkularitza-batzorde akademiko bat sortzea adostu ditu unibertsitate horrekin. Halaber, Connecticut-ko Unibertsitatearekin eta Cincinnati-ko Unibertsitatearekin lankidetzan aritzea ere



aurreikusten da, baita bideo-jokoaren arloan sona handikoak diren erakunde daniar eta holandarrekin ere.

Puntu honetan ondoriozta daitekeenez,, EUNEIZen ikerketa-jardueraren programazioak betetzen ditu 420/2015 errege-dekretuak horri buruz ezartzen dituen baldintzak. Izan ere, helburu nagusien artean ikerketa-jarduera bera, emaitzen transferentzia eta pertsonal irakasle eta ikertzailearen prestakuntza eta mugikortasuna helburu nagusien artean dituen proiektu bati ematen dio erantzuna.

4. Ikasle eta irakasleen aurreikuspena

Ikasleen aurreikuspenei buruzko datuak inportanteak dira, lotura zuzena baitute proiektuaren funtsezko beste alderdi batzuekin, irakasleen kopuruari, ekipamenduei, gelategiei, eta, azken finean, aurreikuspen ekonomikoek buruzkoak esate baterako.

Eskaintzen diren tituluen zerrendarekin eta beraiek ezartzeko kronogramarekin batera, ikasturtez ikasturte eskaini nahi diren unibertsitate-plazen guztizko kopuruaren aurreikuspena exijitzen du ere maiatzaren 29ko 420/2015 errege-dekretuak 6. 2 a) artikuluan.

420/2015 errege-dekretuaren exijentziak betetzen dituzten ikasleen aurreikuspenak ere sartzen ditu memoriak (25-28. orr). Hasiera batean, 40 ikasle aurreikusten dira Graduako irakaskuntzetako lehen kurtsoan, eta 25 Masterrekoetan (Fisioterapiako graduan , 60 ikasle aurreikusten dira, eta gradu bikoitzean, 25 aurreikusten dira, izan ezik).

Irakaskuntzak ezartzeko egutegia kontuan hartuta, 205 plazako eskaintza bat kalkulatzen da unibertsitateak funtzionatuko duen lehen urterako, eta 1.080koa zazpigarrenetarako, irakaskuntza guztiak inplementatu ondoren.

Ikasleak herrialde desberdinetatik etorriko direla aurreikusten da, beste unibertsitate batzuekin hitzarmen eta programak izenpetuko direla agertzen baitu proiektuak. Ikasleek euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez jasoko dute beren prestakuntza.

Ikasketak ezartzeko egutegia eta plazen eskaintza

	2019-2020	2020-2021	2021-2022	2022-2023	2023-2024	2024-2025	2025-2026
Fisioterapiako gradua	60	120	180	240	240	240	240
Gorputz Hezkuntzaren eta Kirolaren Zientzietako gradua	40	80	120	160	160	160	160
Gorputz Hezkuntzaren eta Kirolaren	-	-	15	30	45	60	75
Eduki Digital Interaktiboetako gradua	40	80	120	160	160	160	160
Bideo Joko eta Jokoetarako Arte Sormeneko gradua	-	40	80	120	160	160	160
Musika Ekoizpeneko gradua	40+	80	120	160	160	160	160
Gorputz Hezkuntzara eta Kirol Lehiaketara Berregokitzeako gradua	25	25	25	25	25	25	25
Kirol Teknikakaziko masterra	-	25	25	25	25	25	25
Eduki Digitalen Ekoizpeneko eta Ekintzailetzako masterra	-		25	25	25	25	25
Plazen eskaintza kurtsoa	205	450	710	945	1.000	1.015	1.030
MATRIKULATUTAKO IKASLEEN	205	431	653	836	897	910	921

Bestalde, ondorengo adierazi behar dugu: memorian emandako datuetan akats txiki bat dago Gorputz Hezkuntzaren eta Kirolaren Zientzietako eta Fisioterapiako gradu bikoitzera sartzeko plaza berrien kopuruan; izan ere, 22. orrian 25 lanpostu eskainiko direla adierazten da; 24. eta 25. orrietako tauletan, ordea, jasota agertzen den kopurua 15 plazakoa da, eta azken hau da kopuru zuzena.

Irakasleei dagokienez, 420/2015 errege-dekretuak III. eranskinean eta 7. artikuluan egiten dituen exijentziak ondorengoak dira: 1/125 baino txikiagoa izan behar ez duen irakasle/ikasleko ratioa 1/50etik 1/100era artean modula daiteke presentziarik gabeko irakaskuntzetan; graduako irakaskuntzetan doktoreen gutxienezko kopurua ezin da pertsonal irakaslearen % 50 baino txikiagoa izan, eta ehuneko hori % 70era igoko da masterreko irakaskuntzetan; irakasleen guztizkoaren % 60k, gutxienez, denbora osoko dedikazio-erregimena izan behar du. Aurreko baldintzak egiaztatze aldera, 7. artikuluan 6. atalean hau xedatzen da: "pertsonal irakasle eta ikertzailearen plantila jardueraren hasieran aurkeztu beharko dute unibertsitateek; halaber, irakaskuntzak erabat ezarri arte urtero izango den areagotzea aurreikusi beharko dute ".

Gai horiek memoriaren atal espezifiko batean (142-163. orr.) jasota agertzen dira. Unibertsitateak funtzionatuko duen lehen ikasturtean kontratatutako izango diren irakasleen izen-zerrenda sartzen du emandako informazioak, baita, irakaskuntzak erabat ezarri arte, aurreikusten den plantilaren areagotzea adierazi ere. 152-156. orrietako tauletan titulazio bakoitzaren plantilak zehazten dira.

Halaber, doktoreen ehunekoak adierazten dira, baita denbora osoko (36 ECTS kredituko dedikazioa) eta denbora partzialeko (6, 9 eta 12 ECTS kredituko dedikazioa, kasuen arabera) dedikazioa duten doktoreen kopurua ere. Presentziazko ordu-karga ECTS kredituko 9 bat ordutan finkatu da. Horrek denbora osoko irakasleak presentziazko 324-360 ordu emango dituela esan nahi du.



Maiatzaren 29ko 420/2015 errege-dekretuak, gradu eta masterreko titulazioei begira, ezartzen dituen doktoreen gutxienezko ehunekoari buruzko exijentzien arabera da proposamena. Hala ere, eta funtzioetan denbora osoko dedikazioan ari izango diren irakasleen ehunekoa dela-eta, emandako informazioa osatu gabe dagoela adierazi behar dugu, irakaskuntzan parte hartuko duten irakasleen kopuruari buruzkoak baitira irakasleen tauletan jasota agertzen diren datuak; badira, ordea, titulu bat baino gehiagotan irakatsiko duten denbora partzialeko irakasleak eta, horregatik, ezin izan da araudiak ezartzen duen % 50eko gutxienezko ehunekoa betetzen duen edo ez egiaztatu.

Hala ere, ikasle/irakasleko ratioak balio optimo batzuk ditu; izan ere, 25 ikasleko irakasle bat exijitzen du araudiak eta, EUNEIZ unibertsitatearen kasuan, zifra ia erdira gutxitzen da.

Bestalde, irakasleak kontratatzeko erabiliko diren irizpideak definitzen dira memorian, eta irizpide horiek meritokrazioaren printzipioan oinarritzen dira. Halaber, kudeaketa-karguetan aritzeagatik eta berrikuntza-, prestakuntza- edota ikerketa-jarduera egiteagatik aplikatuko diren murrizpenak adierazten dira.

Aparteko kapituluaren Administrazio eta Zerbitzuetakako pertsonalaren plantilaren aurreikuspena agertzen da; guztira 5 pertsona izango dira jardueren hasieran, eta 12, irakaskuntza guztiak ezartzeko prozesuaren bukaeran.

5. Kokapena eta instalazioak

Hasiera batean, Vitoria-Gasteizko hiriarren Biosfera pasealekuaren 6.ean, Bakh kirol-gunearen eta Fernando Buesa Arena pabilioiaren ondoan, han jokatzeko du Baskonia saskibaloitzaletako kokatuko da unibertsitate berriaren egoitza. Lehen urtean 1.016,49 m²-ko azalera bat okupatuko du egoitzak, eta 2.144,57 m²-koa bigarren urtean. Halaber, Deportivo Alaves Klubaren kirol-instalazioak, Mendizorrotza futbol-zelaia barne, erabiltzea aurreikusten da, Gorputz Jardueraren eta Kirolaren Zientzietako Graduaren jarduerak gauzatzeko.

Eraikin horrek Osasun Zientzien eta Eduki Digital Interaktiboen fakultateak hartuko ditu. Instalazioek gelak, laborategiak eta espazio bateratu desberdinak sartuko dituzte. 242-248. orrietan instalazio horien planoak erakusten dira.

Maiatzaren 29ko 420/2015 errege-dekretuak I. eranskinean exijitzen dituen dimentsioen arabera gelak, baliabide-zentrorako espazioak, grabazio- eta produkzio-estudioak eta informatika-gelak azaltzen ditu proiektuak. Hala ere, ez da liburutegirako espaziorik erreserbatu, Sancho Jakintsua fundazioarena den liburutegia erabiltzeko fundazio horrekin hitzarmen bat izenpetu den arren.

Ikerketarako behar diren azpiegituri dagokienez, hau adierazte da: jarduera akademikoa hasten denetik, ondorengo ekipamendua izango du EUNEIZek: Osasun Zientziak irakasteko 150 m²-ko laborategi bat, 300 m²-ko ikerketa-laborategi bat "Buesa Arena" kirol-pabilioian eta 60 m²-ko ebaluazio-unitate satelite bat BAKH kirol-zentroan. Halaber, Eduki Digital Interaktiboen fakultateko laborategiak- 200 m²-ko Gamifikazio laborategi bat eta 380 m²-ko Ikerketa Aplikatuko funtzio anitzeko laborategiak- "Buesa Arena" kirol-pabilioian kokatuko dira.

Memorian hau adierazten da: unibertsitateak lehen bi urtetan funtzionatu ondoren, Deportivo Alavesen etorkizuneko kirol-hirian eraikin bat izango duela aurreikusten du elkarte sustatzaileak, 4.500 m²-ko azalera bat hartuko duena. Eraikin horrek ondorengo tokietarako espazioak hartuko ditu: gelak, liburutegia, ikasketa-gelak, enpresa-proiektuen gunea, laborategiak, bulegoak, kirol-instalazioak (igerilekua, atletismo-pista, pabilioia, futbol-zelaia, gimnasioa, erabilera anitzeko gelak ... eta beste espazio bateratu batzuk.

Deportivo Alaves Klubaren etorkizuneko kirol-hiriarren proiektua, aipatutako eraikina eraikitzeko eta berorren planoak ez direla aurkezten nabarmendu behar dugu eta, horregatik, zein fasetan dagoen ez dakigu.

Bestalde, Osasun Zientzien eremuko irakaskuntzen kasuan, Fisioterapiako irakaskuntzetan hitzarmen bat, ospitale batekin eta Lehen Arretako hiru zentrorekin, gutxienez, izan beharko du derrigorrean unibertsitateak, aipatutako errege-dekretuak II. eranskinean xedatutakoaren arabera.

Baldintza hori betetz, VITHAS San Jose Ospitalearekin eta ondorengo erakunde laguntzaileekin izenpetutako hitzarmenak aurkezten dira, Fisioterapiako ikasleek derrigorrean egin beharreko kanpo praktikak egin ditzaten: Servicios Sanitarios Laubidea SLP; Club Deportivo Alaves SAD; FISIO S.C. zentroa; YON MAESO Fisioterapia Zentroa, eta IGARO S.C. Osteopatia Zentroa. Zentro horiek guztiak Vitoria-Gasteizen dute helbidea.

Arestian esandako guztitik ondorioztatzen denez, funtzionatuko duen lehen bi urteetan aurrera eraman nahi dituen irakaskuntza- eta ikerketa-funtzioak gauzatzeko behar diren azpiegitura eta bitarteko materialak izango ditu EUNEIZek. Dena den, aldi hori pasa ondoren, unibertsitateak bere jarduerarekin jarraitzeko espazio egokiak izango dituela bermatu beharko du elkarte sustatzaileak.

6. Antolaketa- eta funtzionamendu-arauak

Abenduaren 21eko 6/2001 lege organikoak, Unibertsitatearen, 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, unibertsitate pribatuak berek egin eta onartu beharko dituzte unibertsitate horien antolaketa- eta funtzionamendu-arauak eta, edonola ere, printzipio konstituzionalak men egin beharko diete eta katedra- eta ikerketa-askatasunetan adierazten den askatasun akademikoaren printzipioa benetan betetzen dela bermatu beharko dute.

/Halaber, 420/2015 errege-dekretuak 10. artikuluan xedatutakoaren arabera, abenduaren 21eko 6/2001 lege organikoak eta unibertsitateen arloko gainontzeko legeriak agertzen dituzten puntuak jaso beharko dituzte estatutuek eta antolaketa- eta funtzionamendu-arauak; ondorengoak, gutxienez:

- Unibertsitatearen izaera, funtzioak eta gaitasuna.
- Erregimen juridikoa, pertsonalarena eta ekonomiko-finantzarioa.
- Egitura.



- d) Gobernu- eta ordezkari-organak.
- e) Ikasleen eskubide eta eginbeharrak.
- f) Unibertsitate-defendatzailea aukeratu edo izendatzeko prozedura, haren agintaldiaren iraupena, dedikazioa eta funtzionamendu-erregimena.
- g) Diziiplina-erregimena.
- h) Unibertsitatea desagerrarazteko edo kentzeko arrazoiak, errege dekretu honek 13. artikuluan xedatzen duen neurri zuzentzaileen plana ez aurkeztea edo ez onartzea besteak beste.
- i) Nabarmenztat jotzen den beste edozein xedapen, betiere abenduaren 21eko 6/2001 lege organikoaren eta unibertsitateen arloko gainontzeko araudiaren kontra ez bada.

Bidalitako irakaskuntza-memoriak etorkizuneko antolaketa- eta funtzionamendu-arauak sartzen ditu, baita lehen aipatutako araudian adierazitako alderdi guztiak.

Ondorengo hau bereziki nabarmendu behar da: antolaketa- eta funtzionamendu-arauak onartzea ez dagokio zehatz-mehatz unibertsitatearen organo sustatzaileari, unibertsitateari berari baizik, LOUren 6. artikulua 2. eta 5. ataletan xedatutakoaren arabera sortu edo onartua izan ondoren. Horrek antolaketa- eta funtzionamendu-arauen azterketa zorrotza Euskal Autonomia Erkidegoak egin behar duela esan nahi du, haren jarduerak hastea baimentzen den unean eta EUNEIZ unibertsitatearen ezagutza gauzatu ondoren.

7. Azterketa ekonomikoa eta berme finantzarioak.

420/2015 errege-dekretuak 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, beren finantzazio ekonomikoa ziurtatzen duten bermeak aurkeztu behar dituzte unibertsitate pribatuak, ezagutza lortzearen ondorioetarako: bideragarritasun-plan bat; itxiera-plan bat, jarduera bideraezina den kasuetan; eta unibertsitate horretan ikasten hasi diren ikasleek beren ikasketak gutxienezko aprobetxamendu akademiko batekin bukatu ahal izateko moduko gutxienezko aldi batean unibertsitateak eta bere zentro guztiek funtzionatzen jarraitzeko konpromisoa.

Memoriaren 8. kapituluak, "bideragarritasuna eta negozio-plana" (180-211.orr.) , aztertzen dira gai horiek. KPMGk, auditoretza-zerbitzu profesionalak eta lege-, zerga-, finantza- eta negozio-zerbitzuak ematen dituen enpresak, txosten zehatz batean egin eta jaso duela atal hau adierazi behar dugu, EUNEIZeko sustatzaileek emandako informazioan oinarrituta.

EUNEIZ martxan jartzeko, 3 milioi euro erabiliko dira, akziodunek emandako kapitalaren bidez finantzatzeko direnak. Kopuru horretatik 1,5 milioi € ordaindu dira eta gainontzeko % 50 ordaintzea falta da. 5 urteko gehienezko epean ordainduko da, diruzaintzaren premien arabera. Hasierako inbertsioa eraikuntza- eta instalazio-gastuek eska dezaketena alde batera utzita egiten da.

EUNEIZen negozio-planak finantzazioari begira ez dituela arazoak planteatzen adierazten du KPMGren txostenak, bazkideek emandako kapitala baino txikiagoa baita finantzazio hori. Urtero okupatzeko asmoa dauden plazak % 15 gutxiago izango direla eta kutsoko prezioa, Graduko eta Masterreko ikasleentzat, 8.000 €koa izango dela kontuan hartuta egin dira kalkulu ekonomikoak. Horiek horrela, 1.440.000 €ko diru-sarrera batzuk aurreikusten dira unibertsitateak funtzionatzeko duen lehen urtean, eta 6.616.000 €koak 2025/2026ko ikasturtean, titulazioak guztiz ezarriko diren azken urtean. Ikasketak ezarriko diren hirugarren urtetik kontatzen hasita gertatzen dira onura ekonomikoak, eta 687.000 €koak izango dira 2025/2026ko ikasturtean. Dena den, lehen eta bigarren urtean balantzea negatiboa den arren, galerak bazkideek hasieran inbertitutako kapitalaren bidez konpentsatzen dira.

Ez dira beste jarduera batzuetatik etor daitezkeen beste diru-sarrera batzuk aurreikusten, ondorengoak esate baterako: enprekin lankidetzan aritzeko proiektuak; zerbitzuak ikasleei edo hezkuntza-erkidegoko beste kide batzuei ustiatzea; edo unibertsitatean eman daitezkeen berezko tituluetatik etor daitezkeen beste diru-sarrera batzuk.

Gastu nagusiak hauek dira: pertsonal akademikoarena (1.164.000 €), eta gastu operatiboak, -egitura-, alokairu-, publizitate- eta teknologia-kostuei dagozkien partidak nabarmendu behar dira gastu horien artean, - . Ikerketarako erabiliko den zenbatekoa diru-sarreraren % 4koa izango da, urtean 100.000 €ko gutxienezko kopuruarekin.

KPMGren txostenak ondorioztatzen duenez, Unibertsitatearen finantzazio-premiei erantzuna eman ahal izateko modukoa da bazkideek emandako kapitala, okupatzeko diren plazaren kopurua % 15 txikiagoa izan arren. Halaber, unibertsitate horretan ikasten hasiko diren ikasleek ikasketak bukatu ahal izango dituztela ziurtatzerik dagoela adierazten du.

Bestalde, 2015eko maiatzaren 29ko 420/2015 errege-dekretuak 9.b) artikuluan xedatutakoaren arabera eta unibertsitate horretan gutxienezko aprobetxamendu akademiko batekin ikasten hasi diren ikasleek ikasketak horiek bukatu ahal izateko moduan, unibertsitateak eta bere zentro bakoitzak gutxienezko aldi batean funtzionatzeko konpromisoa adierazten duen ziurtagiria aurkezten da. Dena den, horretarako estimatzen den gutxienezko aldia zehaztea komeniko litzateke; horretaz gain, nahiz unibertsitatearen beraren erabakiz, nahiz tituluaren akreditazioa ez berritzeagatik ematen diren titulazioetakoren bat desagertzen bada, ikasleek beren ikasketak bukatu ahal izango dituztela bermatzeko hartuko diren neurriak adieraziko dira.

8. Ondorioa.

Informatzen den memoriak 420/2015 errege-dekretuak aipatzen dituen puntu guztiak azpimarratzen ditu eta, oro har, dekretu horren exijentziak betetzen dira. Ondorioz, Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorrak, bere Batzorde Delegatuaren bidez, aldeko txostena ematen du. Dena den, Unibertsitateen Idazkaritza Nagusiak atzeman dituen ondorengo puntu ahulak zuzentzen direla egiaztatu beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunak:



1) Irakasleei buruz aurkeztu diren datuek ez dute denbora osoan ari izango diren irakasleen ehunekoa kalkulatzeko aukerarik ematen. Horregatik, jarduera akademikoa hasi aurretik, irakasleen plantilaren % 60, gutxienez, dedikazio-erregimen horretan ari izango dela egiaztatu beharko da.

2) Ez dago Unibertsitatea 2021/2022ko ikasturtetik aurrera hartuko duen eraikina eraikitze prozesuari buruzko informazioa. Horregatik, eta obrak atzera daitezkeela kontuan hartuta, unibertsitate berriak aipatutako ikasturtetik aurrera funtzionatzen jarraitu ahal izateko moduko espazio egokiak bermatu beharko ditu erakunde sustatzaileak.

Madrid, 2019ko maiatzaren 10a